



ARMENTIA IKASTOLA, S. COOP.

Gaztelako ataria, 101
Tlf. 945 145 445 – Fax 945 139 621

armentia@ikastola.net - 01007 GASTEIZ



ARMENTIA IKASTOLAKO BEKA-SISTEMA 2021-2022

HELBURUA

Armentia Ikastolak 2021-2022 ikasturterako onartu duen beka-sistemak helburu hirukoitza dauka:

- 1) Bere seme-alaba edo tutorizatu Armentia Ikastolan hezi nahi duen orok Armentia Ikastolan matrikulatzeko aukera izatea eta hezkuntza-prozesu osoa bertan garatzeko aukera izatea.
- 2) Ikastolako bazkideei zenbait ordainketa egiteko laguntza ematea.
- 3) Hezkuntza Saileko beken onuradun diren ikasleen familiei edota tutoreei bekak osatzea eta hauek kubritzen ez dituzten ataletan laguntzea.

DIRU-HORNIDURA

Armentia Ikastolak 10.000 € bideratuko ditu bere ohiko aurrekontutik beka hauek estaltzera. Hasieran jarritako diru-kopurua ez balitz nahikoa Ikastolako Kontseilu Errektoreak erabakiko du diru-partida handitzea ala irizpideak aldatzea.

BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1) NORI ZUZENDUA

1-18 urte bitarteko seme-alabak edota tutorizatuak dituzten bazkide erabiltzaileak.

- 2) ZERTARA BIDERATUA

Beka-sistema honen barruan jasotzen den laguntzak honako gastu hauek hartuko ditu bere gain:

- a. Hezkuntza-gastuak
- b. Materiala: Chromebookak, liburuak...
- c. Irteera pedagogikoak
- d. Eskolaz kanpoko ekintzak: Gehienez ekintza bat eguerdian eta beste bat arratsaldean

Beka-sistema honen barruan jasotzen den laguntzak ez ditu honako gastu hauek hartuko bere gain:



ARMENTIA IKASTOLA, S. COOP.

Gaztelako ataria, 101

Tlf. 945 145 445 – Fax 945 139 621

armentia@ikastola.net - 01007 GASTEIZ



- a. Bazkide-kuota
- b. Garraio-zerbitzua
- c. Zaintza-zerbitzua

3) MAIZTASUNA

Laguntza honen onuradunek hileroko erreziboetan jasoko dute dagokien laguntza edota beherapena.

BEKAREN ONURADUNA IZATEKO BALDINTZAK

- 1) Armentia Ikastola, S. Koop-eko bazkide erabiltzailea izatea.
- 2) Beka eskatzen deneko aurreko ikasturtean Hezkuntza Saileko bekaren onuradun izatea.

*Ikaslearen eskolaratze lehen ikasturtea bada Euskal Erkidego Autonomoan Kontseilu Errektoreak zehaztuko du zein dokumentazio aurkeztu behar den premia agiaztatzeko.

LAGUNTZA AITORTZEKO KONTUAN HARTUKO DIREN ALDAGAIK

- 1) Familia-osaera (kide konputagarriak)
- 2) Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak
- 3) Beste zenbait egoera berezi.

LAGUNTZA-MODUAK

1) Kuotak-murriztea

Laguntza hau jasotzen duten onuradunei honako murrizketa hauek ezarriko zaizkie:

BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDE KONPUTAGARRIAK	MURRIZTUKO DEN %	ERRENTA-TARTEA	
1	%40	8.143,00 €	8.895,60 €
	%30	8.895,61 €	10.378,20 €
	%20	10.378,21 €	11.860,80 €
2	%40	13.350,00 €	15.184,80 €
	%30	15.184,81	17.715,60 €
	%20	17.715,61 €	20.246,40 €
3	%40	17.468,00 €	20.611,20 €
	%30	20.611,21 €	24.046,40 €
	%20	24.046,41 €	27.481,60 €
4	%40	20.201,00 €	24.477,60 €
	%30	24.477,61 €	28.557,20 €
	%20	28.577,21 €	32.636,80 €
5	%40	23.232,00 €	27.358,80 €
	%30	27.358,81 €	31.918,60 €
	%20	31.918,61 €	36.478,40 €
6	%40	26.717,00 €	29.534,40 €
	%30	29.534,41 €	34.456,80 €
	%20	34.456,81 €	39.379,20 €

2) Kuotak-salbuestea

Laguntza hau jasotzen duten onuradunei dagozkien gastuak eta kuotak ordaintzetik salbuetsiko zaie

BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDE KONPUTAGARRIAK	ERRENTA-MUGA
1	11.400,00 €
2	13.350,00 €
3	17.567,00 €
4	20.201,00 €
5	23.232,00 €



ARMENTIA IKASTOLA, S. COOP.

Gaztelako ataria, 101
Tlf. 945 145 445 – Fax 945 139 621

armentia@ikastola.net - 01007 GASTEIZ



6	26.717,00 €
----------	-------------

Laguntza hau jasotzen duten familiek hitzarmen bat sinatuko dute Ikastolarekin laguntzaren ondorioak adosteko.

TRAMITAZIOA

1) Epeak:

- a. Uztailaren 1etik 15era eskabidea eta dagokion dokumentazioa Ikastolako idazkaritzan aurkeztu beharko ditu eskatzaileak. Epealdi arruntetik kanpo matrikulatutako ikasleek matrikula egin eta 15 eguneko epean egingo dute eskabidea.
- b. Kontseilu Errektoreak irailaren 15erako jakinaraziko ditu ebazpenak.
- c. Onartutako kuoten murrizketa edota salbuestea irailaren 1ean sartu dira indarrean eta ikasturte horretako ekainaren 30era arte egongo dira indarrean.
- d. Beste kontzeptuetara bideratutako murrizketak (materiala, jangela, eskolaz kanpokoak...) urtarrilean eta ekainean kitatuko dira.

2) Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- a. Aurreko ikasturtean Hezkuntza Saileko bekaren onuradun izatearen ziurtagiria.
- b. Bizikidetzaren unitatearen errolda-agiria.
- c. Aurreko urteko errenta-aitorpena. Aitorpena egin beharra izan ezean urteko diru-sarreraren egiaztagiria.
- d. Beste diru-sarrera batzuen (GLL, DBE...) egiaztagiriak
- e. Eskatzaileak eskabidea ebazteko interesgarria edo beharrezkoa ikusten duen beste edozein dokumentu edo ziurtagiri.